

ERREPORTAJEA BI ELGOIBARTAR MEXIKON · GEHIGARRIA MIKEL DAKINTARI ELKARRIZKETA
KIROLA MARKEL BERGARA FUTBOLARIARI ELKARRIZKETA

BARREREN

ASTEKARIA



Oporretako albuma errepasatuz

"NAHIAGO DUT ZUTIK HIL, BETI BELAUNIKO BIZI BAINO" (Ché Guebara)

ELGOIBARTAR MEXIKON · GEHIGARRIA MIKEL DAKINTARI ELKARRIZKETA
KIROLA MARKEL BERGARA FUTBOLARIARI ELKARRIZKETA

2003-2004 IHASTURTEHO EUSHARA IHASTAROAH



Eshaintza:

Eushalduntze malia guztiah, Alfabetatzea, EGA
Hizhuntz Eshaksizunaks

Iraupena:

Iraitia-ekaina

Erritmoah:

Bi ordu egunean

Ordu eta erdi egune.an

Ihastaro bereziak:

Gurasoah, Erahunde finantzarioah, Enpresah,

EGA ihastaroa larunbatetan, Mintzapraktika ihastaroah.

Ordenagailu gela:

HEZINET, ordenagailu bidezko programa osagarri.

oporren ostean indarra beharho duzu... eushara beti!

Cespu s valac 2nes necPsaaras 'Lierias ,el eushera lo necesitaras siempre!

16 urtetik gorakoentzat

Beha Sistema. Galde ezazu!

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAKEZU!

Matrihulatzeho epea:

Irailaren letiks 26ra.

Bulego ordutegia:

ELGOIBAR: 09:00-13:00/15:30-19:30



DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea

Nafarroa Enparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • elgoi.euskal.audal.gipuzkoa.net



Etxe barruko arotz-lanak


Lurra

Proiektu integralak egurrean

Igor Isasmendi
Ander Alkorta



Santa Klara, 28 behea
Tel. 656 78 78 59
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ATEAK

LEIHOAK

EGURREZKO SABAIK

ARMAIRU ENPOTRATUAK

EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK

TARIMA ARTISTIKOAK

BARANDAK

BIGA FALTSUAK etab...

40 URTE 40 ISTORIO

Etr^a ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Ongietorri,

Askatasunetik irakurriko duzun lehenengo Barren-a da hau, eta hemendik, zuretzat azken 10 urtetan herriko gertakarien kronista izan den honetatik, besarkada handi bat luzatu nahi dizut. Aitortu beharra daukat barren-barrenetik ongietorri, kaguenlaletxe! bat ateratzen zaidala: pozez, minez, eta esperantzaz betetako ongietorri kaguenlaletxe! bat.

Muxu handi bat ere zure familiari: ama, aita, arreba... 20 urte azkar asko esaten dira, baina haiek bakarrik dakite zer pairatu duten denbora tarte honetan. Kalera aterako zinen berria jakin zenetik zure amaren irribarrea eta aitaren umore ona ikustea bezalakorik ez dago niretzat: kaguenlaletxe pozgarria benetan.

Muxu handi bat ere barruan gelditzen diren lagun guztiei. Estatu espainolak, gehienezko kartzela egonaldia betirako zigor bihurtu nahi du oraingoan, kartzela egonaldia 40 urtera igoaz!! Eta irteteko gutxi falta zaien preso politikoei zigorra "besterik gabe" nola luzatu bilatzen ari da. Kaguenlaletxe! Hau doala beraien lege eta demokrazia ustelarentzat!

Esperantzaz beterikoa falta zait: horrek bizi irauten gaitu bizirik, ez da? Hamaika horri idatzi ahal izango nituen herri honen eta gure etorkizunean jarrita daukadan itxaropenaz. Ameslari bat naizela? Ametsak dira herri honen borrokaren euskarri! Euskal Herri euskaldun eta aske batean bizitzeko itxaropena ez dut nik inoiz galduko! Zaila dela? Euskal presoek eta haien gurasoek pairatzen dutena ikusita, eta oraindik, noizbait irribarrez eta umorez ikusi ahal izango ditudala jakiteak, horrek, beste hainbat gauzaren artean, nire itxaropenaren sua bizirik mantentzen du: kaguenlaletxe!

Lorea Perez de Albeniz

26 40 langile profesional!

Aurreko alean esan genizuen moduan, akaso, langile profesionalen presentzia izan zen lehen eta bigarren etapan artean eman zen aldaketarik garrantzitsuenetakoa. Izan ere, 1963tik 1992ra arte inork ere ez zuen txikitarik kobratu Elgoibarko Izarran lan egiteagatik. Gainera, batek baino gehiagok bere poltsikotik jarri behar izan zuen dirua.

Baina 91n etapa berriari ekin genionean,, Elkartek dedikazio profesionala ere behar zuela erabaki genuen. Dinamika berriari eragiteko eta eusteko beharrezkoa ikusten genuen profesionalen presentzia. Erabakiak harridura sortarazi zuen batzuegan. "Langile profesionalak Elgoibarko Izarran? Euskararen alde ez al dugu ba beti musutruk lan egin? Ez zuten ulertzen nola kobra zitekeen euskararen alde lan egiteagatik. Aldaketa garrantzitsuen atarian izaten den hasierako errezeloa zen.

Alabaina, jende gehienak berehala ulertu eta onartu zuen erabakia. Elgoibarko Izarra euskararen aldeko dinamika berri eta iraunkor batean murgildu nahi bagenuen, dedikazio profesionala ere beharrekoa zen. Euskalgintzari ezin diogu, sarri egin dugun moduan, lau txakur txikirekin eutsi.

Halere, ez genuen borondatezko lana dedikazio profesionalarengatik ordezkatu nahi. Dedikazio profesionala eta borondatezko lana uztartzea izan da gure desioa. Uztarri berean gurdia tiraka doazen bi idien antzera, bakoitza bere ardurekin.

92an profesional bakarrarekin hasi baginen, hamabi urteotan 40 langile profesional inguru pasa dira Elkartetik eta gaur egun hamar dauzkagu. Eta hauen inguruan, borondate hutsez lan egiten duen beste mordo bat. Baina hauen gainean datorren astean jardungo dugu.

Imatwl Larrañaga

Kexak	5
<i>motz MOTZ</i>	8
<i>gehigarria</i>	13
<i>kiROI Ak</i>	20
aGenda	24

DANOBATEN "TAILERRERAKO HIZTEGI TEKNIKOA" DELA ETA.

BARREn bidez jakin dugu DANOBAT Kooperatibak "TAILERRERAKO HIZTEGI TEKNIKOA" berria argitaratu duela. Ondoren honela dio: "Argitalpen hau ez da Danobatek egiten duen lehena; izan ere 1976an "TEKNIKO INDUSTRIAL" hiztegiak aurrea hartu zion orain kaleratu den honi".

Lehenik aipa dezadan, hiztegitxo hau, mekanografiaturik, neure erabilerarako egina nuela eta, bide batez, Danobateko zenbait departamentutan kopiak utzi nituela orduko hartan. Garai hartako enpresa zuzendaritzak, hiztegitxoaren garrantziaz jabeturik, liburuxka moduan antola nezan eskatu zidan eta halaxe egin ere, ELHUYARrek orraztu eta taxaturik. "Sarrera gisa" izeneko hitzaurrea idatzi nuen argitalpen hartarako.

Orain, osatuagoa argitaratu omen duten honetan, ez dakit baimenik eskatu behar ote zidatenetz, baina jakinerazpenik edo bestelakorik ere ez zait egin niri. BARREn irakurritakoa dakit soilik. Zuzenbidezkoa iruditzen zait pare bat hitz esatea behintzat, zerbait komentatzea, bederen. Esaera zaharra da Zesarri berea eman behar zaiola eta.

Badirudi, ostera, gaurko DANOBATEko zuzendaritzak ez duela atzera begiratu nahi, eta zerbait egin izan duena zokoratu eta alden duela memoriatik. Ezin da ulertu bestela.

Felix Etxeberria (Parapan)
Danobateko sortzaileetako.
Danobateko lehen langilea.

MILA ESKER DENOI!

Madalako Jai Batzordea osatzen dugun erakundeok, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizuegu San Bartolome jaietan Madalako jai espazioan parte hartu duzuen herritar guztioi. Eskerrik asko, benetan, bai txosnetan lanean jardun duzenoi, bai txosnetan lagun izan zaituztegunoi, eta baita antolatutako ekitaldietan parte hartu duzenoi ere.

Guri dagokigunez, oso gustura geratu gara aurtengo jaietan Madalako jai gunean izan dugun jai giroarekin. Eguraldia lagun, antolatutako ekitaldietan jende asko izan da eta jai giroa nagusitu da, jaiak tabernetatik kanpo ere goza daitezkeela erakutsiz. Gainera, eta hau ere garrantzitsua da, jarri ditugun lau txosnetan jende asko ibili da eta dirutxo bat atera dugu gure proiektuekin aurrera segitzeko.

Beraz, mila esker berriz ere, eta jakizue dagoeneko hasi garela datorren urtean gauzak hobeto egiteko ahaleginean. Datorren urtera arte, ondo izan!

Madalako Jai Batzordea

Urruzunoren begi ezkutua

Itzulera

Patio berera ematen zuten gure leihoek. Askotan egiten genuen topo tendereteen. Urtarrilaren lean, berak egutegiko hilabete guztiak zintzilikatzen zituen. Nik bat ere ez.

Otsailaren lehen egunean, urtarrilari zegokion orria kentzen zuen berak.

Nik, berriz, estreinako orria jartzen nuen, urtarrilekoa alegia. Orriak kenduz bata, gehituz bestea, irailera iristen ginen. Bere tendereteen lau orri zeuden zintzilik:

irailetik abendura artekoak. Nirean, berriz, zortzi: urtarriletik abuztura. Berak, bizilagunak, penaz begiratzen zuen tenderetea, kendu zuen orri bakoitzeko zimur bat gehiago zeukala eta hilabete gutxiago geratzen zitzaiola sinistuta. Nik pozik ikusten nuen nire tenderete oparoa. Eta irribarretsu pentsatzen nuen, oraindik ere hilabete eta zimur asko nituela bizitzeko eta erakusteko.

Kentzea ala gehitzea. Horra bakoitzaren aukera.

Jasone Osoro

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparaniza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎: 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@lopaguea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comtbarren
ARGITAPATZAILEA
Elgoibarko Narra

LAGUNIZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA UXUe Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILERAK Jasone 06010, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIIATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

■ ELGOIBARKARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



3:1 **1kutxa**
zuri esker

1DANOBAT
MPOUNPS • 11.11.15NTA

irdYGOITI 1ESTARTA
GRUPCI DANOBAT

 **KEXAK**

- Santa Klara auzoko bizilagun batek esan digunez, "Santa Klara auzoak formula-1 pista dirudi gauetan, kotxeak abiada handian ibiltzen dira, horrek dakarren arrisku eta zaratekin. Auzokideok gauero entzuten ditugu kotxeak kriston abiadan San Migelerantz igotzen. Udaletxeari eskakizun bat egiten diogu: altxatutako zebrabide pare bat ipini dezala, kotxeak abiadura jeisteko, Elgoibarko leku askotan dauden moduan. Santa Klaran zergatik ez?"



 **TXALOAK**

- Herritar batek Udala txalotu nahi du Ubitarten oso iturri dotorea jarri dutelako: "Denbora luzez egon da iturria puskatuta, eta bertako ura kutsatuta. Azkenean konpondu dute, eta oso polita dago."

- Guraso batek esan digunez, Madalako parkea oso egoera kaskarrean dago: "Madalako parkea nahiko zaharkituta eta puskatuta geratu da. Gainera ez dago haur txikientzako jolasleku edo kolupio aproposik. Txarrena, ordea, kristal asko egoten dela da. Gurasook nekatuta gaude behin eta berriz kristalak jasotzeaz. Hau gutxi balitz, moketak oso usain txarra dauka, eta are gehiago jaiak pasa ondoren. Kiratsa jasangaitza da. Herrian jolasleku gutxi dago, eta dauden apurrak hobeto zaindu beharko genituzke".



- Erretxindiko bizilagun batek, beraien auzoan haurrentzako parke bat falta dela azaldu digu: "Erretxindiko bi etxebizitza blokeen artean haurrentzako parke bat falta da. Udaletxean epe luzera jarriko zutela esan zidaten, baina ordurako umeak hazi egingo dira! Jarleku berriak jarri dituzte, baina haurrentzat ez dago ezer ere."



Barreak, Birrak eta Barreak

Bi elgoibartar

Justo Arriola eta Sergio



"Txapela buruan eta ibili munduan" dio esaera zaharrak, eta elgoibartarrek ainizat hartu dute esaldi honen mezua. Txapela jantzita edo janizi gabe, asko izan dira aurtengo uda kanpoan pasatu dutenak. Batzuk mendi aldera, besteak kostaldera, kotxez, hegazkinez edo bizikletaz, urrutira edo hurbilera, berdin da. Helburua, oporretan Elgoibartik irten eta eguneroko bizitzatik deskonektatzea. Gaurkoan, Mexikora joan diren bi elgoibartarrekin hitz egin dugu. Justo Arriola eta Sergio Fernandezek hilabete pasatu dute Amerika aldean, eta hamaika abentura kontatu dizkigute.

HELMUGA ARGIA ETA GARBI

Mexiko D.F. hiriburutik hasi eta Estatuko hegoalderaino egin dute bidaia. Piramideak ikusi, Chiapas bisitatu, ohian zabalak pasatu eta Karibeko hondartzetan deskantsatzeko aukera izan dute.

Ez da bi hauek Mexikora joaten diren lehenengo aldia, eta beraiek esan digutenez, "ez da azkena izango, ahal dugunean berriro itzuliko gara". Helmuga aspalditik zeukaten erabakita: "Chiapas aldera joatea nahi genuen, brigadista moduan". Diru bilketa bat egin zuten Mexikoko produktu desberdinak salduz, eta kanpamentu zapatistetako buruzagiari eman zieten: "150.000 pezeta inguru bildu genituen, eta bertako bi komandantek egin ziguten faktura antzeko dokumentua".

MEXIKO B.F.

Mexikoko hiriburuan egin zuten lehenengo geldiduna. Hiriburu handia, eta gauez arriskutsua dela kontatu digute: "Gaueko 23:00etatik aurrera hobe da kalean ez ibiltzea. Jende gehienak armak ditu, eta tiroteoa ugari izaten dira gauetan".

Hiriburutik apur bat iparraldera, Mexikoko piramide famatuak bisitatu zituzten: "Ikaragarriak dira. Eskilara mordoa



dituzte, eta goraino iristean dauden bistak ikusgarriak dira. Hala ere, Espainiarrak lehenengo aldiz joan ziren garaian, dena lau zen eta piramideak gorri pintatuta zeuden. Orduan ikusgarriagoa izango zen". Esan digutenez, piramide ugari desagertu egin dira, eta beraien harriekin monumentu desberdinak eraiki dituzte Mexikoko hiriburuan: "Aurreko kultura desberdinak betirako desagertarazteko deuseztatu dituzte piramide asko".



CHIAPASEKO ABENTURA

San Cristobal herrira iritsi ziren, Enlaze Zibilera, eta bertan segurtasun neurriak gainditu ostean, nortasun agiri bat jaso eta beren Komunitatea egokitu zieten: "Segurtasun neurriak ezinbestekoak dira Komunitate Zapatistara sartzeko, oso kontrolatuta dago".

Justo eta Sergiok Chiapaseko momentu historiko eta garrantzitsu bat bizitzeko aukera izan zuten. Abuztuaren 8tik 10era "Ur beroen heriotza eta barraskiloen jaiotza" ospatu zuten. Beraiek azaldu digute honen esanahia: "Zapatisten zonaldea bost eremutan banatzen da, eta bakoitzak bilgune edo udaletxe moduko bat dauka. Bilgune hauek Ur beroen zona zeukaten izena, baina, gobernu mota honekin ados ez zeudenez, beren

Mexikon

io Fernandez Mexikon izan dira abuztuko oporretan



autogobernua aurrerapauso bat eman dute, hau da, Ur beroekin amaitu eta barraskilo izeneko bilgune berriei eman diete hasiera. Barraskilo bakoitzean Gobernu Onaren Juntak daude, udaletxe onak izango lirateke". Izugarrizko festa izan zela kontatu digute: "Jende pilo bat zegoen, ekitaldi desberdinak antolatu zituzten, eta gero goizaldera arte dantzan jardun zuten denek".

Atzerritarrak zaintzaile moduan kontsideratzen dituzte Zapatisten Komunitatean. Esan digutenez, atzerritar askorekin egin dute topo, eta lagun ugari egin dituzte: "Atzerritarrak Komunitatean dauden artean, Gobernua eta Poliziak ez du gehiegikeriarik egiten, edo gutxiago egiten ditu. Gu han geundela ez zen ezer gertatu, eta hori seinale ona da. Beste Komunitate batzuetatik entzuten genuen emakumeren bat bortxatu zutela, edo hilketaren bat egon zela. Bizitza oso gogorra daukate".

PERRETXIKO MAGIKOEN BIDAIA



Maria Sabina aspaldiko Chaman edo sendagile espiritual famatuak **hasitako** bidetik, perretxiko magikoak erabiltzen dituzte jendearen gaitzak sendatzeko. Indigena

Mazatekoen herrialdean, Maria Sabinaren biloba eta honen amarekin, Justo eta Sergiok perretxiko hauek probatu, eta ritual sakratu batean murgildu ziren. Lekutik mugitu gabe, lau edo bost orduko bidaia izpirituala egin zuten: "Lehenengo perretxikoak jan genituen. Beraiek bitartean, beren hizkuntzan errezatu eta abestu egiten zuten. Berehala hasi ginen geure barnean irudiak ikusten, aspaldikoak, egungoak... denetarik. Aluzinogenoak dirudite, baina irudiak zure barnean daude, errealak dira. Ikaragarria izan zen".

KARIBERA ERLAXATZERA

Hamaika abentura bizi ostean, Karibeko kostaldea bisitatu zuten. Etxera etorri aurretik, erlaxatzeko modurik onena: "Bost egun pasatu genituen hondartzan botata, eguzkia hartu, uretan bainatu eta deskantsatzen". Cancun ere bisitatu zuten, eta oso

garestia dela azaldu digute: "Afaldu eta ospa egin genuen. Hegoalderantz joan ginen, Toulum aldera. Txabolatxo bat alokatu eta bertan pasatu genuen aste osoa". Hondartza eta paisaia ikusgarriak daudela azaldu digute: "Egunguentia ikaragarriak ziren. Goizean goiz esnatzen ginen askotan egunguentia ikusteko". Hondartzak ere, bidai agentzietako argazkietan agertzen diren bezalakoak omen dira: "Hondar zuria, eta ura urdin-urdina. Karibean eta Pazifikoan izan gara, baina pazifikoak izena bakarrik dauka lasaia. Korral arrezife ugari daude, eta buzeatzeko toki oso politak aurkitu ditugu".

MEXIKOKO ONENA JENDEA



Anekdotak txiki batzuk pasatu dituzte bertako poliziarekin, baina orokorrean ez dute inolako arazorik izan. Esan digutenez, Mexikoko onena bertako jendea izan da: "Jende oso jatorra topatu dugu toki guztietan. Beraien artean bertako hizkuntza tipikoa erabiltzen zuten, baina gurekin erdaraz hitz egiten zuten". Gauza asko ikasi dutela kontatu digute, eta beraiek ahal zutena erakusten omen zieten bertakoei: "Euskal Herriari buruz hitz egiten genien, kokapena, egoera politikoa, hizkuntza... batzuk bazeukaten gure berri, baina beste askok ez. Umeekin jolasean ari ginela, euskarazko hitz batzuk erakusten genien, eta beraiek guri beste hitz batzuk".

Oso ondo pasatu dute, bidaia ikaragarria izan da, baina aitortu digutenez, moskitoekin oso gaizki pasatu dute: "Mexikoko txarrena dudarik gabe, moskitoak". Hala ere, gauza onak txarrak baino askoz gehiago izan dira, eta ziur, bidaia errepikatu egingo dutela.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, bigarren etxebizitzarik ez edukitzea ezinbestekoa da

Elgoibarko Udalak pertsona nagusientzako etxez-etxe laguntza zerbitzua jarri du martxan. Bizi itxaropena gero eta altuagoa denez, laguntza behar duten nagusiak gero eta gehiago dira, eta hauek zaindu ahal izateko, instituzioen inplikazioa beharrezkoa da.

Zerbitzu desberdinak

Udaleko Ongizate Sailak zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu. Pertsona bakoitzak daukan beharraren arabera, zerbitzu arinak (ordukako laguntza) edota zerbitzu sakonagoak (Eguneko Zentroa eta San Lazaro Egoitza) eskaintzen ditu Udalak. Eguneko Zentroa King-Kong-engan dago, eta goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte dago zabalik. Guztira 15 lagunentzako zerbitzua eskaintzen du. San Lazaro egoitzari dagokionean, beteta dago. Momentuz 38 elgoibartarrek jasoko dute etxez-etxe laguntza zerbitzua.



San Lazaro egoitza izango da Udalak eskaintako zerbitzuetariko bat.

Baldintzak

Elgoibarko Udalak zerbitzu hauetaz baliatu ahal izateko baldintzak aldatu ditu. Ongizate Sailak jakinarazi duenez, soldata maila ertaina daukan edozein jubilatuk izango du laguntza jasotzeko aukera. Hala

ere, eskaria egiten duenaren ondarea 30.000 eurotik beherakoa izan beharko da, eta bikotea den kasuetan, 60.000 eurotik beherakoa. Baldintza nagusia, bigarren etxebizitzarik ez edukitzea da.

IMHk eta LIA-Brown & Sharpe en 311kari a d natu zuten

IMH "DEA-Brown&Sharpe-IMH Doitasun Aretoa" proiektua jarriko du martxan, eta Europa mailan metrologia dimentsionaleko instalazio aurreratuak izango ditu. Sinadura ekitaldian Joxean Egaña, IMHko Zuzendari Gerentea, Javier Lopez, Zuzendari Teknikoa eta Luis Kortabitarte, Metrologiako Arduradunak parte hartu zuten. DEA B&S enpresatik Jordi Edo Zuzendaria bertaratu zen.

Proiektuak IMHko instalazioetan metrologia dimentsionaleko areto bat eraikitzea suposatzen du. Horretarako institutuak 160 metrotako lokala dauka eta metrologian espezializatutako enpresak instalazioak egokitu eta ekipamenduz hornituko du. Aurreikusitako inbertsioaren arabera, instalazioetan 140.000 euro sartuko ditu eta ekipamenduan 600.000 euro. Aretoaren inaugurazioa urtarilean egitea espero dute. **Akordio honen bitartez, IMHk**



ondorengoa lortu nahi du:

- Kalitatearen kontrolerako ekipamendu aurreratuena eta etengabe eguneratzen dena edukitzea.
- IMH, prestigidun enpresekin kolaborazio hitzarmenak sustatzeko gai den ikastetxe eraginkorra dela adierazi.
- Koordenadaz neurtzeko makinei buruzko eta Metrologia prestakuntza gehitu.

- Inguruko enpresekin harreman zuzena mantendu, zerbitzu eta prestakuntza eskainiz.

DEA Brown & Sharpe enpresaren helburuak:

- Bere bezeroen zerbitzuarekiko hobekuntza konpromisoa bete, zerbitzu hurbilago batekin eta baliabide aurreratuenekin.
- Bere irudia indartu Euskadiko bezero potentzialen aurrean.
- Metrologiaren prestakuntza arloan hobetzea, IMH moduko ikastetxe aurreratuekin elkarlanean.
- Industria sektoretik kanpoko metrologiazko zerbitzuak eskaini.
- IMHkin batera metrologia dimensionalarekin zerikusia duten ikerketa eta garapen proiektuak aurrera eraman.

Euskotren enpresak herri barruko autobus zerbitzua jarri du martxan

Igoibarko Udalak eta Euskotren enpresak herri barruko autobus zerbitzua martxan jartzeko akordioa lortu dute. Joan zen irailaren letik, Soraluze eta Mendaroko ospitalearen arteko ibilbidea betetzen zuen autobusak Elgoibar barnetik pasatzen dira, Sigma eta Arriaga auzoen artean geldiuene desberdinak eginez.

Zerbitzu berri hau Euskotren enpresako mikrobus batek beteko du. Soraluzetik datorren autobusa. Olasoko industrigunetik sartuko da Elgoibarrera, eta bertan egingo du lehenengo geldiuena. Ondorengo geldiueneak, Santa Ana kalea, Osasun Zentroa, Madala, Artetxe, San Pedro eta Arriagan egingo ditu. Kontrako norabidean, hau da, Mendarotik Soraluzera bueltan, Arriaga, San Pedro, hiltegia, Mupen, Osasun Zentroa, Santa Ana eta Sigma izango

ELGOIBAR			
SIGMA		ARRIAGA	
SIGMA - ARRIAGA		ARRIAGA -	
8:00	8:10	8:10	8:20
9:25	9:35	9:55	10:05
11:10	11:40	11:10	11:20
11:20	11:50	11:40	11:50
12:10	12:40	12:10	12:20
12:20	12:30	12:40	12:50
13:10	13:20	13:10	13:20
13:20	13:30	18:10	18:20
18:20	18:30	19:00	19:10
19:10	19:20		

Sigma eta Arriaga lotuko ditu Euskotrenen mikrobusak.

dira autobusak egingo dituen geldiueneak. Hau guztia kontuan izanik, autobusen ordutegia apur bat aldatu egingo da. Dagoeneko jarriak daude autobus geltokietan ordutegi berriak.

Emakumeei zuzendutako Gestio Enpresarialerako 2. kurtsoa jarri du martxan Debegesak

Iazko arrakasta ikusirik, perfil administratiboa duten emakumeentzat Gestio Enpresarialerako 2. kurtsoa jarri du martxan Debegesak. Emakumeei gestio enprearialerako erreminta praktikoak eskaintzea da honen helburua, konpetitibitate eta eskaera profesional handiak eskatzen dituen merkatuan beren lana hobeto bete ahal dezaten.

Ikastaroa urriaren 2an hasi, eta martxora arte luzatuko da. Guztira 100 orduko iraupena izango du, eta dohainik izango da. Bertan parte hartzeko enpresa administrazioan esperientzia izatea eta lanean egotea ezinbestekoa da. Programaren barnean Estrategia eta Planifikazioa, Gestioa, Marketing-a eta finantza alorra eskainiko dira, besteak beste. Interesatuek 943-82 0110 telefonora deitu, edo naiara@debegesa.com helbide elektronikora mezu bat bidali dezakete.

Sallobente Jaietako zozketa

Sallobente Elkarteko Zuzendaritzak jakinarazi digunez, Sallobente Jaietan zozketatutako txekorraren zerbaki sariduna ondorengoia izan da:

Zerbaki sariduna: 35.845

Erreserba: 49.680

Aurkezteko epea: 03-09-16




Merkatu Plazako dendariak 60 euroko bi txeke eta bi afari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko bi sari eta bi lagunentzako bi afari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Ines Ortiz de Eribe eta Maite Etxanizek 60 euroko txekea irabazi dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Bestalde, Maria Teresa Uria eta Sonia Urbiolak beraiek aukeratutako lagunarekin Gabi jatetxean afaltzeko aukera izango dute.


ESKERTZA

2003ko irailaren 5ean, 49 urte zituela hil zen
LOREA JLIARISTI ZABALAREN sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Psikologoaren esanetan, hauek dira opor osteko sindromearen sintoma batzuk:
giharretako mina, tristura, jateko gogo falta...

IZAN AL DUZU OPOR OSTEKO SINDROMERIK⁹



66 urte, jubilatua

Oin ez, jubilauta nao-eta, baina lanian nabilenian eukitzen naban. Iraileko lehenengo bi edo hiru egunak gogorak eitzen zian. Lanera juteko nostalgia eukitzen naban. Hala ere, azkar sartzen nitzan eguneroko martxan.

JUAN BELLOPI

23 urte, trokelatzailea

Bai, sintoma guztiak ditut, eta urte osoan irauten dit gainera. Oporrak eta gero oso gogorra da lanera bueltatzea. Nere lana gustatzen zait, baina goizetan jaikitzea ere asko kostatzen zait.



FRANCISCA BARREIROS

49 urte, garbitzailea

Pereza ematen du lanean hasteak, baina opor osteko sindromea ipuina da. Kostatu egiten da, oporretan hobeto bizi baikara, baina lanera bueltatu behar garela mentalizatuz, ez da hainbesterako.

AINHOA GARITAGOITIA

18 urte, ikaslea

Bai, nik badaukat. Oraindik oporretako lainoan murgilduta nago. Neretzako txarrena goizetan jaikitzea da. Bestela, aurtien modulu berri bat ikasten hasiko naiz, eta ilusioa ere badaukat.



SIPADONCES

66 urte, jubilatua

Jubilatuta nago eta urte osoan dauzkat oporrak. Lehen igartzen nuen. Goizetan jaikitzea zen gogorrena, baina pare bat egunetan pasatzen zitzaidan lanera bueltatzeko tristura.

MEIVISE ONDARZIL

54 urte, etxekoandrea

Nik opor osteko sindromea baino txarragoa daukat. Etxekoandreak ez du oporrik hartzen. Gizona oporretan egon arren, nik etxian beti daukat zeregina. Neretzako abuztua eta iraila igualak dia.



IMMTE071<0 «IWISIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
@ IZENA EMATEAN %i OEKO BEHERAPENA

ut

e/14114 *Wovtout tualazia 16 nte dete azoꝛcd4 eta,*
1.5 nte dete azept,ai

41⁹

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

KASTOLA

hur hezkuntza	ikasleak
2 urte	42
3 urte	41
4 urte	25
5 urte	35
lehen hezkuntza	ikasleak
1. maila	39
2. maila	26
3. maila	33
4. maila	23
5. maila	30
6. maila	33
bigarren hezkuntza	ikasleak
DBH 1	40
DBH 2	33
DBH 3	41
DBH 4	46
guztira	487

1.144 ikasle matrikulatu dira aurten DBHra arteko mailetan

laz baino 144 ikasle gehiago matrikulatu dira aurten Elgoibarko ikastetxeetan



Elgoibarko ikastetxeek hasi dute dagoeneko, 2003-2004 ikasturtea. Aurten goan, 1.144 ikasle eman dute izena DBHra arteko mailetan, hau da, iaz baino 144 gehiago. Ondorengo tauletan jaso ditugu ikastetxe bakoitzeko datuak.

**INSTITUTUA-HERRI ESKOLA**

hur hezkuntza	ikasleak
2 urte	30
3 urte	36
4 urte	43
5 urte	37
lehen hezkuntza	ikasleak
1. maila	19
2. maila	29
3. maila	23
4. maila	25
5. maila	12
6. maila	30
bigarren hezkuntza	ikasleak
DBH 1	23
DBH 2	29
DBH 3	32
DBH 4	31
guztira	409

PILAR

hur hezkuntza	ikasleak
2 urte	10
3 urte	19
4 urte	6
5 urte	21
lehen hezkuntza	ikasleak
1. maila	13
2. maila	21
3. maila	20
4. maila	19
5. maila	18
6. maila	25
bigarren hezkuntza	ikasleak
DBH 1	18
DBH 2	31
DBH 3	26
DBH 4	21
guztira	248



UZTAILA / ABUZTUA

HILOAKOAK

Lorena Etxaniz
Rodriguez
Abuztuak 14
Aitor eta Maria

Aimar S. Martin Larrañaga
Abuztuak 9
Manuel eta Eguzkiñe

Leire Rodriguez Roman
Uztailak 8
Jose eta Sonia



Amanda Caro Garcia
Uztailak 1
Vicente eta Alejandra



Lara Santaren Mancisidor
Abuztuak 12
Juan Francisco eta Susana



Arkaitz Mayora Otaegui
Uztailak 3
Iñaki eta Izortze



Cristina Marcos Fernandez
Abuztuak 27
Rosa eta Migel Angel



Aritz Goikoetxea
Arambarri
Uztailak 15
Pedro Jose eta Leire



Aimar Agirrezabala
Peñagaricano
Abuztuak 11
Jon eta Amaia




Laida Astigarraga Osoro
Abuztuak 5
M. Angel eta Maria Luisa



Nerea Barrutia Sanz
Abuztuak 19
Iñaki eta Azucena



Ainhize Urizar Alzaga
Abuztuak 5
I. Ioseba eta Ana Isabel



Sara Nogales Migales
Abuztuak 22
Jose eta Maria



Aiara Garcia Marin
Abuztuak 9
Oscar eta Ana Isabel



Miguel Beraza Cengotita
Abuztuak 27
Julian eta Yolanda

Antonio Arriola,
81 urte, uztailak 1
Engracia Urrutia Alunda,
85 urte, uztailak 2
Purificacion Gomez,
69 urte, uztailak 6
Maria Visitacion Lopez,
70 urte, uztailak 6
Ion Andonegi Amesti,
24 urte, uztailak 6
Jose Maria Arocena Garate,
84 urte, uztailak 12
Tomas Zabaleta Etxeberria,
74 urte, uztailak 29
Josefa Alberdi,
97 urte, abuztuak 1
Maria Luisa Arano Oregui,
84 urte, abuztuak 7

Isidro Leiaristi,
84 urte, abuztuak 10
Jose Arriola,
69 urte, abuztuak 11
Sergio Lemos Vazquez,
92 urte, abuztuak 11
Jose Narvaiza Albizu,
80 urte, abuztuak 11
Jose Goirugolzarri,
78 urte, abuztuak 12
Juan Jose Goirigolzarri , 78
urte, abuztuak 13
Baltasara Gonzalez Juez,
79 urte, abuztuak 17
Basilisa Artetxe Lasaga,
86 urte, abuztuak 20
Encarnacion Elortegi,
94 urte, abuztuak 31


EZKONTZAK

Pascual Naranjo eta Silvia Gonzalez
Uztailak 5
Roberto Almenara eta Sonia Bruno
Uztailak 5
J. L. Gonzalez eta Ana Maria Osoro
Uztailak 5
S. J. Sanchez eta Maite Mariscurena
Uztailak 26
F. Sanchez eta Mercedes Reyna
Uztailak 26

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

BARRREN

ASTEKARIA

elkarrizketa



INAUTERIAK, HERRIKO FESTAK... EDOZEIN AITZAKIA DA ONA UMOREARI BIDEA IREKITZEKO. HORRETAZ OSO ZIUR DAGO MIKEL DAKINTA, BERE USTEZ, BARRERIK EZ EGITEA A RAZO OSO SERIOA DELA AITORTU DIGUN ELGOIBARTARRA. TXISTE KONTAKETAN TREBEA, KARI ATURETAN ABILA...BI HITZETAN ESANDA: UMOREAN MAISUA. EROTURA DAGOELA PENTSA LEZAKE AG AN NORBAITEK, BAINA BERAREKIN BI HITZ TR KATU ORDUKO EROKERIARIK HANDIENA SERIO ETA TRISTE BIZITZEA DELA KONTURATUKN DA EDOZEIN. EZ DA LEKZIO MAKALA! ETA UM(E AGORTEZIN HORREN SEKRETUA NON DA. * IN? BERTSOLARI HARK ZIOEN BEZALA: "BERE URUAI PARRE ITEN DIO, BURLA BATZUEK TAR O; HORREGATIK DU ESKUBIDEA BESTEEI PARRE: TEKO!"

Mikel Dakinta

EZAGUNA DA HERRIAN MIKEL DAKINTA, ETA EZ DA HARRITZEKOA. ZIUR ZUK ERE IKUSI IZAN DUZULA MOZORRO BITXIREN BAT SOINEAN, KANTUAN ETA BARREZ LEHERTZEN. ETA BARRE EGITEA IA-IA ARTE BILAKATU DEN MUNDU HONETAN, PENTSA BARRE ERAGITEA ZER IZAN BEHAR DEN. II ZURI EZ AL DIZU INOIZ TXISTERIK KONTATU? BA, PENA DA. HURRENA, MAHATSAK BELARRIETAN ZINTZILIK IKUSTEN DUZUN BATEAN ZOAZ BEREGANA. ZIUR TXISTEA IXARRA IZANDA ERE BARREZ LEHERTUKO ZAREIA!



Mikel Dakinta

"Barre egiten ez dt

Zerk egin zaitu ezagun herrian?

oso erraz irabazten da, ona baino as-
D. Urte askoan zerbitzari lanetan aritu
ezin izaten nuen San Bartolomeez eta
ozatu; baina behin irteten hasi nintze-
ra, txisteen munduan ere ibili izan
;ustatu izan zait zoroarena egitea.



Noiztik duzu txistek kontatzeko afizioa?

gustatu izan zait gauza guztien kontu-
gitea. Txikitan karikaturak egiten
ia txiste kontaketan beranduago hasi
Kartutxon zerbitzari nintzela.

Eta oraindik karikaturak egiten jarraitzen
al duzu?

zean behin egiten ditut baina lehen
:oz gutxiago.

**"INOI EZ ZAIT BI
ARITZEA; HEI**

Jende aurrean ere aritu zara inoiz, ezta?

gehien begira izan nuen aldietako bat Baserritarren
an izan zen. "Duo Plaentxi" k jo behar zuen, eta plaza
inezka zegoen. Club Deportiboko rifa kantatu behar
nik bitartean txistek kontatu behar nituen. Neukan
kin kontatu beharreko 4 txisteetatik 3 bakarrik amaitu
nituen!

Zer behar du txiste kontalari on batek?

ez juxtu guztiz kontrakoa: barre egiteko batere gogorik
a.

Inoiz ez al zaizu bururatu komiko izatea, txiste kontatzen
profesionalki aritzea

ba. Nik herrian gozatzen dut, festa giroan.


Juergazalea zara. Urteko parrandarik onena?

Judarik gabe. Orain jada parrandarako ohitura galtzen
oso oso parranderoa izandakoa naiz.

Nondik dator mahatsak belarrietatik zintzilik eramateko ohitura
bitxi hori?

tzari izateari utzi eta geroko istorioa da. Txiki egun ba-
zio Gurrutxaga "Ñaka", "Fonta" eta hirurok gaupasa
i ginen. Generaman mozkorrarekin juxtu juxtuginen
ta zezenaren aurretik korrika egiterik ez genuenez Mer-
oan ginen zigala batzuk gosaltzera. Jan bitartean "Ña-
rta, brinoi batzuk eta beste zenbait gauza eroatera bida-
hura izan zen kalera mahatsak belarrietan zintzilik ge-
inen lehengo aldia.

n egunean Olason egongo najz"



[EU TXISTE KONTAKETAN PROFESIONALKI GOZATZEN DUT NIK, FESTA GIROAN"

Aurten txupinazoak edo, hobeki esanda txupinazoez, eman dute zeresanik. Zein da zure iritzia honen inguruan?

Nire ustez txupinazoa bat eta bakarra izan behar da, eta eguardiko ordubatean baino goizeko zazpitan nahiago. Zenbat eta lehenago hasi, hobe!

I Inauteriak ere bereziak omen dira zuretzat.

Bai, bi anekdota ditut inauterietan, oso

politak. Duela 19 urte, inauterietan, neska batekin lehen aldiz irten nintzen, eta duela bost, neska berarekin ezkondu nintzen egun berean, inauterietan. Eta nola ez, bi egunetan mozo-rotuta irten ginen biok kalera.

Barrez lehertu zaren une bat? Askok, baina, bereziki, "Naka" eta "Fonta"rekin pasatako Txiki Egun guztietan.

Inork zurekin edo zure kontura barre egin duen momenturik? Nire kontura...horiek ez dakizkit, baina suposatzen dut asko izan direla. Eta nirekin...horiek ere asko, lehen kontatu dudana Baserritar Eguna hartan, adibidez. Ez zait gustatzen jendeak niri txalo jotzea, mila aldiz nahiago dut jendea nirekin barrez lehertzea.

Beti adarra jotzen eta txiste kontari aritzen zara, baina benetan nolakoa da Miguel Daquinta? Egia esan, ez dakit nolakoa naizen. Uste dut beti berdina naizela, kanpoan eta barruan, etxean eta kalean. Oso alaia naizela uste dut, ez zait seriotasuna batere gustatzen.



"111AKA" ETA "FONTA" GONBIDATUKO NITUZKE TXIKI EGUNERA."


I Bukatzeko, txiste bat kontatuko al zenidake?

Nire gehien gustatzen zaizkidan txisteak inori gustatzen ez zaizkion horiek dira. Adibidez hau: -"tengo un perro que diu papa y mama.

-vaya tontería, yo tengo un bote que diu melocotije en almibar!"



motz motzian



Zer lirateke San Bartolomeak Txiki Egunik gabe? Ez lirateke San Bartolomeak izango

Nor gonbidatuko zenuke gustura Txiki Egunera? "Naka" eta "Fonta"!

Zer kendu eta zer gehituko zenieke Elgoibarko jaiei? Kendu, ezer ez, jai batzuei ezin zai ezer kendu. Eta gehitu, beste zazpi egun eta trikixita asko, faltan sumatzen ditut lehengo erromeriak.

Zer pentsatzen duzu jende serioaz? Arazo serio bat dela ez barrerik egitea. Nik barrerik egiten ez dudan eguneran, uste dut Olason egongo naizela.

Komiko bat? Eugenio

Munduari umorea falta zaiola uste duzu? Bai, asko eta gero eta gehiago. Aurtengo Txiki Egunari ere alaitasuna faltatu zaiola iruditu zait, agian karka bat bihurtu naizelako izango da baina...

Eta azkenik, zer du Athletic-ek beste taldeek ez dutenik? Ez dakit, baina jendea ez da Athletic-eko egiten, Athletic-eko jaiotzen da. Nire ustez sentimendu horrekin jaiotzen da, nik ezin izaten diet malkoei eutsi telebistan Athletic-en historia ikusten dudan bakoitzean.

besteen ahotan



Todor CCIIVO "Gu biok lotzen gaituen nolabaiteko "ezkongaitasun" sano bat dela medio, ezinezkoa egiten zait athletizale amorratu honen izaera lau lerrotan laburtzea "Dakin"en bat-batekotasun alaia eta dibertigarria ezagutzera emateko. Egun normalak jaiegun bilakatzeko gai da apaingarri bitxiak jantziaz, txiste edo oroitzapenen kontaktetaz. San Bartolometako "atseden" egunak edota edozein domeka gau izan ditu unerik aproposenak limoi azal batekin hortzak egin edota paperezko serbiletak belarrietan jarriz jendeari barrea eragiteko. Zenbat aldiz (ile gehiago zaukagun garai haietan) gitarrak eta Bafliak hartu eta tabernaz taberna, Gestorako txosnan edo Gaztetxian herritarrek girotu izan ditugu... eta "Dakin" zuan zirikatzen ninduen! Baina ongi ezagutzen dugunok badakigu azal honen barruan zer dauan: bizitasun handiko per-tsona, burugogorra ("esne txarra" ere badu), metodikoa baina oso erreflexiboa, arazoei seriotasunez aurre egiten dakiena eta egoerak eskatzen badu burua galtzen ez duena. Abertzalea, solidarioa, bihotz onekoa eta bere lagunaren benetako laguna, musika zalea (nahiz eta belarri gogorrekoa izan), piper berde frijitu zalea... Jende askok proposatuko luke Dakintari

monumenturen bat egin edo kaleren bati bere izena ipintzia. Nik ez, nere ustez (ez naiz horrela pentsatzen duen bakararra) berak gehien maitatzen duen Anak, bere bizilagunak, izango lituzke merezimendu guztixak, eguneroko xumetasunean benetako euskarri eta ezinbesteko laguntza baitu mendaroar jator honengan. Aupa Lakui! (barkatu Patxi Salinas)"



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 12 Zabaleta
- 13 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 14 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 15 Ibañez
- 16 Bidasolo
- 17 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 18 Fernandez
- 19 Yudego

GAUEZ

- Zabaleta
- Etxeberria
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego

FARMAZIAK

- ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

14 igandea Doña Mercedes

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkohoko Anonimoak	943 74 03 85
D YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzamgoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Coldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eg uneko Zentroa	943 74 45 65

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero				
DonostiaAnkRA	5.45	06.45...	20.45	
Elgoibar	07.02	08.02...	22.02	
jaiegunetan 7.43ean hasiko dira				

BILBO-DONOSTIA

Egunero				
Bilbo	06.00	7.00...	20.00	
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23	
jaiegunetan 8.00etan hasiko dira				

EuskoTren

AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero				
Mendaro	07.50	08.50	21.50	


ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan				
Elgoibar	07.25	08.25	10.25...	21.25
Jaiegunetan				
Elgoibar	08.25	09.25	10.25	21.25




ESKERTZA

2003ko uztailaren 12an, 84 urte zituela hil zen
JOSE MARIA AROCENA GARATEren sendiak,
bibotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko irailaren 6an, 78 urte zituela hil zen elizakoa eta Aita
Santuaren bedeinkapena hartu ondoren
CLARA BERISTAIN ALDALUR, en sendiak pertsonalki egitea
ezinezkoa zaigunez, lerro hauen bidez gure eskerrik beroena eman
nabi dizuegu samin agurra adierazi dezutenoi eta hileta
elizkizunetara etorri zineten guztioi



Txankakua Merkatari Elkartearen jaialdia izango da Plaza Handian datorren irailaren 20an, zapatuan

Hirugarren urtez jarraian, Elgoibarko merkatariak kalera aterako dira

Datorren irailaren 20an, Elgoibarko merkatariak kalera aterako dira. Goizeko 11:00etan hasi eta arratsaldeko 19:30ak arte, Txankakua Merkatari Elkartearen jaialdia izango da Plaza Handian, eta herritarrek beren gustuko produktuak ikusi eta erosteko aukera izango dute. 50 merkatarik osatzen dute Txankakua Elkartea, eta horietatik 20 aterako dira Plaza Handira.



Ezkerrean Maria Eugenia Gonzalez, Txankakuako presidentea. Eskuman iazko azokan ateratako argazkia.

Egitaraua

11:00-13:30 eta 16:00-19:00

- Txankakuaren 111. Feria
- Haurrentzako parkea
- TXU-TXU tren

12:30ean

- Txankakuarekin merienda: Txartelak banatuko dira, arratsaldean esnezko opila eta txokolatinatagatik trukatzeko.

16:00etan

- Gorritirekin ondo pasatzera: Poniak, bigantxak, basurdeak eta hezitako oilarrak.

16:45-17:15

- Txankakuarekin merienda

18:30ean

- Zozketa: 60 euroko 5 sari banatuko dira. Boleto sarituak momentuan bertan egon beharko du.

Aurreko bi urteetako esperientzia ikusirik, hirugarren urtez jaialdia antolatuko du Txankakua Merkatari Elkartea. Luvik zapata dendako Maria Eugenia Gonzalez da Elkarteko presidentea, eta berak esan digunez, helburua herriko dendak kalera ateratzea da: "Iende asko dendetan sartzea zaila egiten zaio askotan, baina Plazan errazago hurbiltzen dira postuetara. Elgoibartarrei herrian bertan kontsumitzeko erraztasunak eman nahi dizkiegu". Txankakuak herriko denda txikiak bultzatu nahi ditu, izan ere, "denda txikiak herriari bizitasuna ematen diote, eta oso garrantzitsuak dira".

11 urte bete ditu dagoeneko Txankakua Elkartea, eta 50 bazkide inguru dauzka gaur egun. Horietatik 20 merkatarik jarriko dute beren postua Plaza Handian: "Denetariko postuak egongo dira: janaria saltzen batzuk, zapata dendak, loradendak,

bidaia agentziak...". Aurtengoan berrikuntza bat sartu dute programazioan: "Txankakuarekin merienda" egingo dute, hau da, eguerdian ume bakoitzari boleto bat emango zaio, eta arratsaldean esnezko opila eta txokolatea emango zaio horren trukean. Adin guztietako jendearentzat antolatuko dute egitaraua, eta eguraldiak laguntzen badu, giro bikaina izango dela ziurtatu digute antolatzaileek.


Zozketa

Arratsaldeko 18:30etan 60 euroko 5 sari zozketatuko dira. Irailaren 15 eta 20 bitartean elkarteko edozein dendatan eta Plaza Handiko ferian erosten dutenek, zozketan parte hartzeko boletoak jasoko dituzte. Saria eskuratzeko, boleto sarituak Plaza Handian egon beharko du zozketa egiten den momentuan.



ESKERTZA

2003ko uztailaren 29an, 74 urte zituela hil zen TOMAS ZABALETA ETXEBERRIAREN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari eskainitako astea antolatu du Ongarri Zine Klubak hilaren 1 8tik 2Gra bitartean

"Jet Lag", "Bowling for Columbine" eta "La bici de Ghislain Lambert" dira filmeak

Irailaren 18an hasiko da Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 51. edizioa. Zinezaleek filmerik berrienak ikusi eta izarrik disdiratsuenak gertutik ezagutzeko aukera izango dute, baina zinerik onena ikusteko ez da Donostiara joan beharrik izango. Izan ere, Ongarri Zine Klubak Kultura Sailaren laguntzaz, Donostiako Zinemaldiari eskainitako astea antolatu du, iaz estreinakoz egin zuen moduan. Gauzak horrela, iazko zinemaldiko 3 filme ikusi ahal izango dira Herriko Antzokian. "Jet Lag" filme frantziarra izango da lehendabizikoa, irailaren 18an. Pelikula honek zinemaldiaren 50. urteurrena itxi zuen iaz, sekzio ofizialeko



Zinemaldiko aurtengo kartela.

azken filmea izan baitzen. Juliette Binoche, Jean Reno eta Sergi Lopez aktore ezagunek egiten dute lan bertan. Irailaren 23an (martitzena) eta 25ean (eguna), berriz, "Bowling for Columbine" dokumental arrakastatsua izango da ikusgai. Ikusleen botoen bidez lortzen den "Perla" saria irabazi zuen Oscarretan, dokumental onenaren saria eskuratu zuen filme garrantz eta kritiko honek. Azkenik irailaren 24an (eguztana) eta 26an (barixakua), "La bici de Ghislain Lambert" filme frantsesa ikusteko aukera izango dugu. 2001. Zinemaldiko gidoirik onenaren saria irabazi zuen film bitxi eta original honek. Filme guztiak 22:15ean hasiko dira.

Elgoibarko VIII. Komiki Lehiaketan lanak aurkezteko epea iradaren 26an amaituko da




Kokoe Elkartek Elgoibarko VIII. Komiki Lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko azken eguna irailaren 26a izango da edo egun horretara arte mataseiloa duten sobreak onartuko dira, eguerdiko 14:00ak arte. Originalak Kultura Zerbitzura, (Nafarroa Plaza, 3) eramane beharko dira. Lehiaketako oinarri dagokienez, nahi duen guztiak parte har dezake lehiaketa honetan, bakarka nahiz taldeka. Gaia librea izango da, baina pertsonaiek eta istorioek orijinalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Teknika ere librea izango da. Formatoa, berriz, 18x24zm—takoa izango da, edo


proporzionala: behar bezala errotulatu egongo da lana, eta 4 orrialdeko luzera izango du. Zuri—beltzeko modalitate bakarra egongo da, tonu grisak barne izango direlarik. Lanak euskeraz nahiz gaztelaniaz idatzi ahal izango dira. Lehiaketako irabazleak 500 euroko diru saria jasoko du, 300 euro bigarrenak eta 200 euro hirugarrenak. Honetaz gain, 120 euroko sari berezia izango da euskeraz errotulatuak komikirik onenarentzat. Lehiaketari buruz edozein berri jakiteko telefono zenbaki honetara dei dezakezue, 943744344 edota www.kokoe.org web orrian sartu.



ESKERTZA

2003ko abuztuaren 31n, 94 urte zituela hil zen **ENCARNACION ELORTEGI BORDAGARA** Iren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





MARKEL BERGARA

FUTBOLARIA

"Argentinan aurkako partidua bi milioi eta erdiko audientzia izan zaban

■ 17 urtez azpiko Munduko Futbol upelketan txapelkunorde izan zara Espainiako selekzioarekin Finlandian. Espero al zenuen horrelakorik?

Lehenengo fasia pasatzia zan gure lehen helburua, talde oso onak zaudela baigenezkian. Saillkatzia lortu ostian, finala gero eta gertu ikusten genduz, irabazteko gogo itzela sartu jakun eta finalera ailegau ginan.

■ Gutxigatik galdu zenuten finala, ezta?

Bai, 1 eta 0 galdu gendun Brasilen aurka. Berehala sartu ziguten gola eta berdintzeko aukera asko izan arren, ezin izan gendun. Momentuan asko izorra arren, denboriakin eta hotzian hartuta satisfakzio handixa da mundial bateko finala jokatzera iristia.

■ Nolako txapelketa egin du Espainiako selekzioak?

Final laurdenetan Portugalen aurkako partidua errebantxa gisa hartu gendun Europako txapelketako finala irabazi baitziguten. 5 eta 2 irabazi genien. Argentinan aurka jokatu gendun final aurreko partidua. Faborituak zian txapelketa guztian eta saillkapen fasian gol bakar bat jaso gabe ailegau baitzian, baina finalerako saillkatu ginan prorrogan sartutako urrezko gol bati esker.

■ Lagunak San Bartolometan zeudela jakiteak ez al zizun inbidiarik ematen?

Bai, kristona, batez ere juergan zabizela mobilera mensajiak bidaltzen zizkianen. Bestetik, mundiala jokatzeko izugarriko ilusiva nakan. Nere edadiakin munduan dauan txapelketa inportantiena da eta Mundial bat jokatzeko aukera bizitzan behin bakarrik izan daiteke. Jaixak, berriz, urtero hor daude.

■ Zein izan da txapelketako unerik zailena?

Sierra Leonan aurka lehenengo partidua. Afrikarren aurka gorputzez gorputzeko borrokan denak galtzekoak genixuanenez lan asko ein bihar izan gendun, baina berdinketia lortu gendun.

"Realeko jubeniletatik Sansera pasako naiz aurten"

■ Eta unerik gozoena?

Argentinaren aurkako partiduan Cesc jokalarixak prorrogan sartu zaban urrezko gola dudarik gabe, finalera saillkatzeko balio izan baitzigun.

■ Txapelketako zer irudirekin geratzen zara?

17 urtez azpiko futbol txapelketa baten inguruan mugitzen dan jendiakin, kazetari kopuruakin eta antolakuntzakin geratu naiz harriztuta.

■ Egon al da besteen gainetik aritu den jokalaririk?

Gure taldian Cesc izeneko katalan

batek izugarriko txapelketa ein dau. Bankilluan hasi zaban txapelketia, baina jokatzan hasi zanian jokalaria oso ona dala frogatu eta izarretako bat izan da. Gainera, bere onduan jokatu dot zelai erdixan eta oso gustura sentixu naiz

■ Gustura geratu al zara egindako jokoaz?

Entrenatzailiak aukera asko eman zizkian eta aprobeixau ditzutela uste dot. Sei partidutatik guztixak jokatu ditzut 10 minutu izan ezik. Kalidade handiko jendia zakagun taldian eta lana eitxia izan da nere eginbiharra. Baloiaren jabetza bihar daban taldia zan guria eta baloi hoiiek berreskuratzia eta zelai erdiko jokalarixak baloiez hornitzia zan nere funtziva.

■ Horrelako txapelketa batek asko balio dezake ezagutzera emateko, ezta?

Bai, igartzen da. Argentinaren aurkako partidua 2 milioi eta erdiko audientzia izan zabala telebistan aipatu ziguten eta errekor bat hautsi zala. Horrelako mundial bat eskarate bikaina izan daiteke.

■ Balioko al dizue lehen mailako atea zabaltzeko?

Hala espero dot. Dana dala, denboraldi gogorra izango da aurtengua, Realeko jubeniletatik Sansera pasako bainaiz eta esperientzia eta indar askoko jokalarixak izango ditzut aurrez aurre. Salto handixa da eta ia jokatzeko aukerarik daukaten.

Alto Campoora izango da Morkaikoren hurrengo irteera irailaren 19tik 21era bitartean



Udako oporren ostean Alto Campoo (Palentzia eta Kantabria artean) eski estazio inguruko bazterrak czagutzeko gonbitea egin nahi diete Morkaiko Mendizale Elkartekoek herritarrei. Bertako mendi eta bailarak ezagutzeko gogorik izanez gero, irailaren 19tik 21era bitarteko asteburua apuntatu beharko duzue agendan. Irteera ostiralean, hilaren 19an, arratsaldeko 18:30etan izango da, Txankakua zubian. Bidaia autobusez egingo da eta Villar izeneko herriko "Albergue Las Indianas"-en

hartu dute ostatu, pensio erdiko aukeran. Hau da, ostiral zein larunbateko afariak eta larunbat zein igandeko gosariak barne. Saku edo izararik eraman beharrik ez da izango. Inguru hortako parajerik politenak ezagutu ondoren, igandean izango litzateke itzulera, arratsalde aldera. Prezioa 60 eurotakoa da bazkideentzat (70 euro gainontzekoek) eta esan bezala joan-etorria, bi gau, bi gosari eta bi afari sartzen dira bertan. Errosario kaleko bulegoan eman daiteke izena edo 943 74 02 97 telefonora deituz.

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 13
10:15 Elgoibar - Eibar (Kad.)
17:00 Haundi - Berio (Pref.)
Domekia, 14
10:15 Elgoibar - Ermua (Inf.)
12:00 Elgoibar - Euskalduna (Jub.)



Aerobik talde berriak irailetik aurrera

Olaizaga kiroldegiak aerobika egin ahal izateko talde berriak sortu nahi ditu irailetik aurrera. Astearte eta ostegunetan izango dira klaseak goizez: 8:00etatik 9:00etara, 9:00etatik 10:00etara eta 10:00etatik 11:00etara. Gutxienez 10 pertsonak eman beharko dute izena taldeak osatzeko. Prezioa 18,65 eurotakoa da abonatuentzat (23 euro abonatu gabekocntzat). Bestalde, gaztetzozko aerobik taldea ere sortu nahi da. Astearte eta ostegunetan izango lirateke klaseak 18:00etatik 19:00etara. Olaizaga kiroldegian eman daiteke izena.



ESKERTZA

2003ko abuztuaren 11n, 80 urte zituela hil zen **JOSE NARBAIZA ALBIZU "ELUS"** en sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko abuztuaren 10ean, 84 urte zituela hil zen **ISIDORO LEIARISTI SANMARTIN** en sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Etxebizitzak

+ 3 neska elgoibartarrek, 3 logelatako pisua hartuko lukete alokairuan.

-zr **646 61 50 57 (Nekane)**

• Etxebizitza salgai San Roken. Altzariakin, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Kanpora begira.

tr **610 29 18 17**

• Etxebizitza konpartitua behar da.

645 70 14 93 (Ion)

• Logela alokatzen da. Tr **943 74 18 81**

* Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. tr **945 27 87 09**

Pisua hartuko nuke alokairuan.

17 **943 03 03 21 (Mertxe)**

Salerosketak

• Orbea bizikleta salgai. 2 urte baino gutxiago ditu. Merke.

tr **943 74 28 83**

• Citroen Xsaara salgai. TD. 3 urte.

630 49 03 55

• Spanier arrazako txakurkumeak salgai. Ehizara ohituak dauden gurasodunak. Merke. a **609 07 97 97 (Aitor. 18:00etatik aurrera)**

4. Ford Orion 1800, 16v salgai. 41.000 km, 11 urte. -Er **943 74 09 44**

* Renault Clio 1.2, salgai. 7,5 urte, 115.000 km. 2.100 euro.

tr **653 01 10 43**

Suzuki GS 500 salgai. 2001. urtekoa.

tt **660 42 48 55**

• Maxi-cossi bat saltzen dut. Egoera onean. Sako guztia aparitzen dut.

tr **943 74 04 46 (21:00etatik aurrera)**

Citroen AX salgai. SS-Z. 300 euro.

ik **649 01 81 99 (Pedro)**

♦ Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. Tr **616 26 62 12**

OHARRA:

Merkatu txi ki rako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerd i ko 1 3:30a da.

Bestelakoak

• Arrasate-Mondragonera egunero goizko 8:00etan heltzeko kotxea duen pertsona behar dut. Gastuak ordainduko nituzke. Premiazkoa da. 0 **650 27 74 15**

♦ San lazaro egoitzan anplifikadore txiki bat behar da, Bingo eta Kinan erabili ahal izateko. a **943 74 02 96**

• Lore lehorrekin ezkontzetarako oroigarriak egiten ditut. Tr **667 34 85 03**

Garajeak

• Garaje marraduna salgai Pista Beltzean. Tr **943 74 16 88**

• Garaje marraduna alokatzen da Leku Ederren. -a **943 74 01 97**

• Garaje alokatzen da Santa Klaran. tr **943 74 14 36**

• Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan, oso sarrera onarekin. tr **660 79 53 01**

Partikularrak

• Ingelesezko klase partikularrak ematen dira Elgoibar eta Mendaron.

-zr **943 74 29 84/943 75 52 09**

• Frantsesezko klaseak ematen dira. Maila guztiak. tr **943 74 42 73**

• IBatxilergoko, DBh, eta LH-ko klase partikularrak ematen dira.

-a **625 42 05 49 (Olatz)**

• Ingelesezko klase partikularrak ematen dira. a. **649 22 11 54**

Agurrak

• Zorionak Paul-i, irailaren 4an 14 urte bete zituelako. Kalsekoen eta Oihaneren partez.

+ Zorionak Nerea Goi-ri, Ilenia Ibarluzea eta Lander Azpiazuri, 10, 11 eta 12 urte beteko dituztelako. Gelakoen partez.

• Zorionak Ilenia, hilaren 10ean urteak bete zenituelako. DBH 3ko mutil eta neska guztien partez.



♦ Zorionak Maialen zure 1. urtebetetzean. Segi martxa horrekin, bihurritxo. Familiakoen partez.



• Zorionak Nerea Perez, abuztuaren 1 ean 7 urte bete zenituelako. Josu, Esther eta Mariaren partez.



• Zorionak txapeldun 8 urte bete dituzulako. Nerea eta bereziki, Ibaireren partez.



*Zorionak Maite! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu eta besarkada handi bat familiakoen partez.



• Zorionak Danel, abuztuaren 28an 3 urte bete zenituelako. Guraso eta familiakoen partez.



• Zorionak Nora Armendiari, abuztuaren 31 n 8 urte bete zituelako. Familiakoen, eta bereziki, guraso eta anaia Higoren partez.



• Zorionak Axular, gaur 3 urte bete dituzulako. Familiakoen eta bereziki zure anaia Luke-n partez.



• Zorionak Ane Perez-i, abuztuaren 23an 13 urte bete zenituelako. Josu, Esther eta Mariaren partez.



• Zorionak Yaizari, hilaren 9an 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia-aren partez.

ALBERDI

ERREKADISTA w **609 264 705**

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

- Paketeak
- Sobreak
- Gestoria
- Komertzioa

GESTIOAK

- Ogasuna
- Trafikoa
- Merkataritzako erregistroa
- Diputazioa
- Merkataritzako - ganbera



*Zor onak leireri, hilaren 7an 3 urte bete zituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



+ Zorionak **Irati Egaña**, etxeko txikienari, irailaren 17an bere 1. urtebetetzea ospatuko duelako. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Alaitzen partez.



+ Zorionak **Naroa Almenara** eta bere ama Rosari, hilaren 9an urteak bete zituztelako. Familiakoen partez, ondo pasa!



* Zorionak **Ainhoa Bergarari**, hilaren 6an 6 urte bete zituelako. Etxeko guztien partez.



*Zorionak **Ainhoa Muguerza**-ri, irailaren 3an 6 urte bete zituelako. Familiakoen, eta bereziki, Unairen partez.



• Zorionak irailaren 8an 7 urte bete zituelako. Familiakoen, eta bereziki, leraren partez.



*Zorionak **amatxo**, Lara eta Danelen partez.



• Zorionak **Eneko**, abuztuaren 26an 4 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



* Zorionak **Goraneri**, gure neska politxenari bere 8. Urtebetetzean. Aitaxo, amatxo eta denon partez muxu handi bat.



• Zorionak **Naiara Ruiz Rojano**, uztailaren 31n urteak bete zenituelako. Aitxita, osaba-izeba, guraso eta lkerren partez.



• Zorionak **Aitor**, domekan 9 urte bete zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, Maier, ainhoa, Julen eta Zorioneren partez.



• Zorionak txapeldun eta aunitz urtez!!! Muxu pottolo-pottolo bat gure Anderri bere 3. urtebetetzean.



Zorionak **Asier Garaialde** Cid-i, abuztuaren 31n 2 urte bete zituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zo ionak **Olaia**, abuztuaren 28an 7 urte bete zenituelako. Familiakoan, eta bereziki, aitxiten partez.



• Zorionak **Garazi Osorori**, hilaren 11n 8 urte bete zituelako. Aitxita Sabin eta familiakoan partez.



• Azkoitin ezkondu ginen 1978ko uztailaren 7an. **Zilarrezko ezteiak** bete izango genituen aurten. Zure familiakoek eta semeek ez zaituzte ahaztu.



• Zein **politik** zineten lehen! Zelan aldatu diren gauzak, urtek ez dabe barkatzen. Zorionak!



• Prest al zaudete? **Iritsi da ordua!** Zuei esker egun ahaztezin bat pasako dugu. Muxu handi bat familiakoan eta lagunren partez.



• Zorionak **Jose** eta **Mari Karmeni** guraso izan berri zaretelako. Familiako guztien partez.

12 BARIKAKUA

18:30 ATLETISMO MEETING-A MINTXETAKO PISTAN

Mintxetaren 10. urteurrena
Mammo Wolde eta Juan Mugerzari
omenaldia
Ondoren, Naroa Agirre (pertiga) eta
Juan Carlos de la Ossa (5.000
metroan)

14 DOMEKIA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

17 EGUAZTENA

19:30 EINBIOUREN BATZARRA

Gaia: Jarduera politikoaren
zehaztapena
Kultur Etxean

18 EGUENA

18:00 HITZALDIA

Gaia: "Adimen osasuntsuak gorputz
osasuntsuetan"
Jubilatuen Biltokian

HITZALDIAK

Adimen osasuntsuak gorputz osasuntsuetan

"Adimen osasuntsuak gorputz
osasuntsuetan" izango da irailaren 18an,
egunean, 18:00etan Jubilatuen Biltokian
entzun ahal izango den hitzaldiaren izenburua.
Saio honetan osasunari dagozkion erabaki
onenak hartzeko informazioa eta laguntza eman
nahi dira. Tresna baliagarria izan nahi du
gaixotasunei aurre hartu eta, era horretan,
bizitza kalitateari eutsi edota hobetzeko.

KONTZERTUAK

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko
du datorren domekan, irailaren 14an, Herriko
Antzokian. Jose Antonio Osororen
zuzendaritzapean honako pieza hauek joko
dituzte: "Aguero" (J. Franco), "The Exodus
Song" (J. de Meij), "Autum Leaves" (J.
Kosma), "La Chasse" (J. Staruss), "El Chaleco
blanco" (F. Chueca), "Bella Italia" (H. Kolditz).
Saioa eguerdiko 12:30etan hasiko da.

EUSKARA

Matrikula zabalik AEK euskaltegian

AEK euskaltegiak eta aurten "Bai esan?"
lemapean, euskara ikasteko matrikula zabalik
dauka irailaren 26ra arte. Euskalduntzeko maila
guztiek gain, etorkinentzako, ikastaro bereziak
antolatu dira. Baita EGA prestatzeko zein
irakaskuntzan eta administrazioan beharrezkoak
diren hizkuntza eskakizunak ere. Udalaren
laguntza izaten denez, langabetuek, gurasoek

eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute eta
Udalak jarritako baldintzak betez gero,
matrikula ia dohainik ateratzeko aukera dago
beka sistema ere izango delako. Argibide
gehiago nahi izanez gero, deitu 943 74 26 37
telefonora edo hurbildu Plaza Txikian dagoen
AEK euskaltegira.

Euskara ikastaroak gurasoentzat

Aurten ere Udaleko Euskara Batzordeak
herriko euskaltegiekin eta ikastetxeekin
elkarlanean gurasoei zuzendutako euskarako
klase bereziak eskaini ditu. Gainera, Udalaren
dirulaguntzari esker, 0-12 urte bitarteko haurrak
dituzten gurasoek ikastaroaren matrikula erdia
bakarrik ordainduko dute eta kurtsoan zehar
asistentzia eta aprobetxamendu ona izanez gero,
beka ere jasotzeko aukera izango dute.
Euskalduntzen ikastaroa euskaraz oraindik
gutxi dakitenentzat edo nahikoa konfidantza ez
dutenentzat zuzenduta dago, euskararen
ikasprozesuan aurrera egitea du helburu eta
urritik ekainera bitarteko iraupena izango du.
Hobeto eta errezago hitz egiten ikasteko
ikastaroak, berriz, 125 orduko iraupena izango
du. Hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko
ikastaroak ere iraupen bera izango du eta
euskaraz hobeto eta errazago irakurri eta
idazteko eta umeei etxeko lanak egiten
laguntzeko balioko du. Ordutegiak gurasoen
beharren arabera molda daitezke. Izena
emateko edo informazio gehiago jasotzeko:
Udal Euskaltegian: 943 74 27 31 edo AEK
euskaltegian: 943 74 13 32. Izena emateko
azken eguna irailaren 23a izango da.

ZINE
kluba



"Jet Lag"

Zuzendaria: Daniele Thompson.

Antzezleak: Juliette Binoche, Jean Reno, Sergi Lopez.

Rose (Juliette Binoche) bizitaz aldatu nahi duen makilatzailea da. Gaizki tratatzen duen gizon batengatik ihesi Mexikora alde egitea erabaki du. Felix (Jean Reno) negozio gizon abila eta arrakastatsua da, baina amodioan ez du zorterik. Ez dute ezer komunean, baina Parisko aeroportuak bizi duen kaosak (pilotuen greba, ordenagailuak izorratuta...) biak batuko ditu. Agian betirako.

MATRIKULAZIOAK

EPA Helduentzako Heziketa

Helduentzako Heziketa Eskolak matrikulazio epea zabalik dagoela jakinarazi nahi du. Alfabetizazioa, atzerritarrentzako ikastaroak, bigarren mailako graduatua eta kultura orokorra zabaltzea eta Bigarren Hezkuntza dira ikastetxearen eskaintza. Interesatuok E.P.A. Usetxe kalea, s/n P. Muguruza Ikastetxera jo dezakezue edo 943740880 telefonora deitu. Ordutegia 16:00etatik 20:00etara da.

Mendaroko Musika eskola

Mendaroko Musika Eskolak irailaren 15ean, astelehenean irekiko ditu ateak. Bertan, solfeoa, korala eta musika tailerra txikientzako izango dira aukeran. Instrumentuentzako klaseak, berriz, irailaren 29an hasiko dira.

IKASTAROAK

Yoga

Sanatana Dharma eskolak yoga ikastaroak eskainiko ditu Elgoibarren. Irailaren 9an hasi ziren klaseak eta honako telefonootan eman daiteke izena: 943 74 85 93/ 635715503 (Idoia) edo 943 74 40 31 (Kemen belardenda). Ordutegi desberdinak daude aukeran. Astelehen eta eguaztenak (20:00etatik 21:30etara), Astearte eta ostegunak (10:00-11:30 / 15:00-16:30 / 18:00-19:30 / 20:00-21:30).

Buztin ikastaroa haurrentzat

Lurki elkarteak haurrei zuzendutako buztin ikastaroa antolatu du. Irailaren 8an hasi zen eta urriaren lera arteko iraupena izango du. Astelehenetik ostegunera izango dira klaseak 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago jaso edo izena emateko: 677 46 63 44 telefonora hots egin.

Altzarien errestaurazioa

Eskuz elkarteak altzarien errestaurazio ikastaroa antolatu du. Urriaren 2tik aurrera, asteartetan eta ostegunetan eskainiko dira eskolak, 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Interesatuok 94374 08 01 (Mertxe) telefonora deitu

KZ guneko ikastaroak

Elgoibarko Kzgunek ikastaro berriekin hasi du iraila eta guztiz debalde. Hasteko IT KZgunea izeneko 2 ikastaro emango dira. Bertan ordenadorea erabiltzen, informazioa bilatzen, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, Netscape Mail, eta beste hainbat gauza erakusten dira. Kurtsoa irailaren 22tik 3ra izango da goizeko 11:00etatik 13:00etara eta hilabete honetako azken ikastaroa 29an hasiko da arratsaldeko 18:00etan. Guztira 10 egun eta egun bakoitzean 2 ordu. Ikastaroetan interesaturik daudenak Kzgunera joan besterik ez dute egin behar. Ordutegia goizeko 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara da.

zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian
"Los Angeles de Charlie al limite"

12, barixakua: 22:15
13, zapatua: 19:30-22:15
14, domekia: 19:30-22:15
15, astelehena: 22:15
"Jet Lag" (Z.K.)
18, eguena: 22.15
"Como Dios"
19, barixakua: 22:15

~ligr

IP "Identidad"

12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua: 17:00-19:30-22:30
14, domekia: 17:00-19:30-22:30
15, astelehena: 19:30-22:15
16, martitzena: 19:30-22:15
17, eguaztena: 19:30-22:15

"La Liga de los hombres
extraordinarios"

12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua: 17:00-19:30-22:15
14, domekia: 17:00-19:30-22:15
15, astelehena: 19:30-22:15
16, martitzena: 19:30
17, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litekeen emanakien



"Los Angeles de Charlie al limite"

Zuzendaria:

Antzezleak: Cameron Diaz, Drew Barrymore, Lucy Liu.

Galdutako eraztun batzuk bilatzera bidali ditu Charlie bere Aingeru xarmantak. Ez dira edonolako eraztunak, ordea, epaiketetan testigu izan eta izenez eta bizitokiz aldatu ostean, pertsona hauen nortasun berriak gordetzen baitituzte eraztun hauek. Jendea hiltzen hasi da eta beraien ailezia eta esperientzia guztia erakutsi beharko dute aingeruek. Txarliren aingetia izandako emakume anker bat (Demi Moore) dago guztiaren atzean.

N

1



A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1948. urte ingurukoa da argazkia. Bertan ageri den mutil koadrila oso ezaguna zen gure herrian, "Malapc" izenez ezagutzen zen, eta umore ona herriko txoko guzletara zabaltzen zuten. Argazkia gaur egungo Kultur Etxe aurrean aterata dago, eta dirudienez zerbait ospatzen ari dira. Erretratuan koadrila honetako partaide batzuk ageri dira, baina ez denak. Gogora ditzagun zein diren erretratuan ageri zaizkigun mutil hauek.

Goiko ilaran ezkerretik eskumara: Ladis Zabaleta (f), Jose Eizagirre, Antonio Armendia, Julio Anton, Jose Mari Mendikute eta Juanito Arriola (t).

Beheko ilaran: Imanol Mendikute eta Jesus Galarraga.

- Goian bego -



**SERGIO LEMOS
VAZQUEZ**

*2003ko abuztuaren 11n hil zen
92 urte zituela.*

2003ko abuztuaren 11ean

92 urte zituela hil zen Eibarren

Chantadakoa zen (Lugo)

SERGIO LEMOS VAZQUEZ,

Gumersinda Gomez Carreraren alarguna.

Bere seme-alabek, suhiak, errainak, bilobek,

eta berbilobek, bihotzez eskertzen dituzte

jasotako doluminak, hala nola

hileta elizkizunetara agertu izana.

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskuratu dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

EUSKARA IKASTILIAN, E

- Maila guztiak
- Perfilak
- EGA
- Atzerritarrentzako ikastaro bereziak

Eskolak
goizez,
arratsaldez
eta **gauzez**

Langabetu, guraso
eta ikasleek
matrikula erdia,
beka sistema
(udalaren Iaguntzaz)

Izena Eman irailaren 26a aurretik



M...
...
...
aek Euskaltegia

Plaza Txikia, 3 • Tel.: 943 74 13 32

elgoibar@aeknet.net

GREIBIOEN GIDA

AROTEG1-AK



BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
tr 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
u 943 74 34 90

LURRA

Santa Klara, 28 Behea
zr 656 78 78 59

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
-11 943 74 36 34

ULAZ1A

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
Tr 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
zr 943 74 03 96

ETXEKIT

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
17 943 74 43 47

ITURGINTZA, GASA, KALEFAKIR>A "TETA KLIMATIZAZIOA

ANGEL

Santa Ana, 5
m* 943 74 17 61
zr 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
"zr 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
u 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
Ir 943 75 50 62
u 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
zr 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
943 74 07 89
zr 608 14 30 40

PINTURAKT:

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
u 943 74 15 52
u 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
zr 943 74 04 40
tr 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
z^ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
u 943 74 09 02
u 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
1^ 943 74 13 76

GELTSEK 1TZA



ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
u 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
1T 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
zr 943 74 29 87
zr 679 19 77 47

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
22 943 74 30 94